

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5279

ERABAKIA, 2023ko urriaren 31koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluarena, ente publikoaren 2023ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintza onartzen duena.

Osasun Sailaren 2020-2024 Esparru Estrategikoan, non pertsonen beharrei erantzun onena ematen jarraitzeko Eusko Jaurlaritzaren osasun-politiken gida definitzen den, gure Euskal Osasun Sistema hobetzen jarraitzeko erronka planteatzen da, langileengan, azpiegitura berrietan, ikerketan eta prozesuetan inbertituz, integrazioaren, lankidetzaren eta eraginkortasunaren printzipioetatik abiatuta.

Langileen eremuan, enplegua kontsolidatzea aurreikusten da, plantilla handitzeko neurriak ezarriz, Osakidetzari lan-egonkortasun handiagoa emateko, 2020-2024 aldian dagozkion hautaketa-prozesuak deituz, onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzen esparruan.

2023ko enplegu publikoko eskaintzan, langileen birjartze-tasari dagozkion plazak sartzen dira; alegia, 2022ko langile-baja garbien % 120, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreko aurrekontu-ekitaldian zerbitzuak emateari utzi dioten langile finkoen kopuruaren eta aipatutako ekitaldian sartu diren langile finkoen kopuruaren arteko diferentziari aplikatzen zaio ehuneko hori (langile finko horiek edozein arrazoirengatik sartu direla, salbu enplegu publikoaren eskaintzetatik datozenak edo lanpostuak erreserbatzea ez dakarten egoeretatik itzuli direnak). Ondorio hauetarako, zerbitzu-prestazioa honako arrazoi hauengatik utzi duten kasuak hartzen dira kontuan: erretiroa, heriotza, uko egitea, lanpostua gorde gabeko eszedentzia-egoera deklaratzeko, karrerako funtzionarioaren izaera galtzea edo lan-kontratua azkentzea, edo lanpostua erreserbatzea edo lanpostua uzten den administrazioaren kargurako ordainsariak jasotzea ez dakarren beste edozein administrazio-egoera. Era berean, kontuan hartuko dira beste administrazio publiko batzuetara lekualdatzeko lehiaketan ondorioz izandako altak eta bajak.

Ondorio horietarako, Erabaki honi Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ziurtagiri bat erantsi zaio, eta bertan adierazten da zenbat baja eta alta hartu diren kontuan birjartze-tasa kalkulatzeko.

Enplegu publikoaren eskaintzan, langile berriekin bete beharreko plazez gain, beste lanpostu batzuk ere sartuko dira, barne-sustapeneko prozesuen bidez bete daitezkeen. Plaza horiek ez direnez zenbatzen langileen birjartze-tasaren ondoriozko gehieneko plaza-mugaren barruan, aipatutako abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikuluan zehazten den bezala, Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari dagokio, dagokion negoziazio-prozesuaren ondoren eta plantillaren egoera aztertu ondoren, EPEan barne-sustapeneko prozesuen bidez eskainiko diren plazen kopurua onartzea. Bi deialdiak, txanda irekikoa eta barne-sustapenekoak, batera egingo dira.

Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatuko da lanpostuak nola banatu behar diren lanbide-kategorien arabera, eta bertan negoziatuko dira, orobat, deialdien oinarriak, eta, Administrazio Kontseilu honek onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Horrela, Osakidetzak berriro adierazi du bere profesionalen enpleguaren kalitatea hobetzeko

konpromisoa duela, lege-esparruaren barruan, eskaini beharreko plazen kopurua giza baliabideen birjartze-tasaren gehieneko ehunekora egokituz (% 120), aipatutako aurrekontu-legeetan jasotako oinarritzko arauetan ezarritakoaren arabera.

Osakidetzaren enplegu publikoaren eskaintzen barruan, Osasuneko Mahai Sektorialak 2023ko irailaren 28an egindako bilerarako igorritako gai-zerrendan jasota dagoenez, 2023ko EPEa egituratzen duen langileen birjartze-tasari buruzko informazioa sartu da, eta negoziazio-prozesuan jarraituko du dagozkion deialdiak eratzeari dagokionez, bai eta eskaini beharreko plazak hautatzeko irizpideei eta kategoria eta lanpostu funtzionalaren araberrako banaketari dagokienez ere, Osakidetzako egiturazko plantillaren egoeraren eta 2022ko baja garbien ondorioz sortutako lanpostu hutsen arabera.

Azaldutakoaren arabera, eta Kontseilu honi aurkeztutako dokumentuak aztertuta, Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean xedatutakoarekin eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.f) artikulua bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2023ko urriaren 31ko bilkuran honako hau erabaki zuen

AKORDIOA

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutupeko langile finko izateko 2023ko enplegu publikoko eskaintza onartzen da.

2023ko enplegu publikoko eskaintzan guztira 1.265 lanpostu eskainiko dira, langileen birjartze-tasari dagokionez.

Bigarrena.– Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari ahalmena ematen zaio, dagokion negoziazio-prozesuaren ondoren eta plantillaren egoera azertu ondoren, txanda irekiko eta barne-sustapeneko hautaketa-prozesuen bidez EPEaren barruan eskainiko den lanpostu-kopurua onar dezan.

Hirugarrena.– Aurreko apartatuetan aurreikusitako estatutupeko langile finko izateko eta barne-sustapeneko prozesuak batera egingo dira, oposizio-lehiaketaren sistemaren arabera.

Bi prozesuen fase guztietan beteko dira publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak, eta ahalik eta gardentasun handienarekin garatuko dira.

Laugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian dagozkion deialdiak argitaratzean zehaztuko dira deialdi honetan sartuko diren lanpostu funtzionalak.

Bosgarrena.– Nolanahi ere, eskaintza horretatik, deialdiko lanpostuetan lege ezarritako ehunekoa gorde behar da desgaitasuna duten pertsonak betetzeko, dagozkien hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarrietan ezartzen diren baldintzetan.

Seigarrena.– Hautaketa-prozesuak garatzeko jardueren kudeaketa oinarri orokorrek eta dagozkien deialdietako oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera egingo da.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio deitzen diren hautaketa-prozesuen kudeaketa egiteko ardura, oinarri orokorrak eta espezifikoak kontuan hartuta, eta aldi berean, haren esku uzten da deialdiak gauzatzeko beharrezkoak diren ebazpenak ematea, barne sartuta deitu behar diren lanpostuak zehazteari buruzkoa, kalifikazio-epaimahaiak izendatzeari buruzkoa, eta deialdiei eta destinoen esleipenari buruzkoak.

2023ko azaroaren 24a, ostirala

Zortzigarrena.– Sinatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak erabaki honek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 31.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko lehendakaria,
MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.